



**2022KO IRAILAREN 26KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko irailaren hogeita seian, arratsaldeko bost eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu. Iñaki Eskisabel Zurututza kontu hartzailea ere bertan izan da.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkeztu da 2022ko irailaren 12an egindako bilkurako akta, esaldi batean aldaketa txiki bat eginda onartu delarik.

II.- HARIZTI HANDI FUTBOL ZELAIAREN ARGIZTAPEN ARTIFIZIALEKO INSTALAZIOA EGUNERATZEKO PROIEKTUA ESLEITZEKO ALKATETZAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Harizti Handi Futbol Zelaian argiteria led sistemara pasatzeko proiektua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lehiaketaren deialdia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2022ko ekainaren 22an eta proposamenak aurkezteko jarritako epean, 5 proposamen aurkeztu ziren.

Aurkeztutako enpresak honako hauek dira:

1. TECNICAS APLICADAS AL MEDIO RURAL S.L.
2. TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L.
3. TECUNI, S.A.
4. ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.
5. EDS INGENIERIA Y MONTAJES S.A.

Aurkeztutako bost enpresak onartuak izan ziren.

Hauek dira aurkeztutako proposamen ekonomikoak eta lortutako puntuazioa, handienetik txikienera:

ENPRESA	Prezioa		Bermea		GUZTIRA
	Zenbatekoa	Punt. (85)	Proposamena	Punt. (15)	
TECNICAS APLICADAS AL MEDIO RURAL S.L.	114.680,83	85,00	8 urte	15	100,00
TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L.	150.469,70	61,39	8 urte	15	76,39

TECUNI, S.A.	158.925,46	55,81	8 urte	15	70,81
ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.	166.183,86	51,02	8 urte	15	66,02
EDS INGENIERIA Y MONTAJES S.A.	167.684,79	50,03	8 urte	15	65,03

Proposamenak aztertu ondoren, Técnicas Aplicadas al Medio Rural, S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza anormalki baxua zela jo zen, leihaketa arautzen duen Baldintza Administratiboen Pleguaren 17. artikulua erabaki da.

Técnicas Aplicadas al Medio Rural, S.L. enpresari entzutealdi izapidea eman zitzaien, eskaintzaren balorazioa justifikatu eta beraren baldintzak zehaztu zituzten, baina Kontratazio Mahaiak kontsideratu zuen enpresak aurkeztutako dokumentazioak ez zituela bere eskaintzaren balio anormalak edo neurritz kanpokoak justifikatzen, beraz eskaintza hau behin betikoz baztertzea erabaki zen.

Hau horrela izanik, lehen salkatua, TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L. izatera pasatu zen eta kaudimen baldintzak betetzen dituela eta lizitazioaren erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatu ondoren, esleipena egin ahal izateko ZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HIRU euro eta BERROGEITA BEDERATZI zentimoko (7.523,49 €) fidantza eratu zezala eskatu zitzaion, eta horrela egin zuen.

Hau horrela izanik eta obrak ahalik eta lasterren hasi behar zirenez, 2022ko irailaren 19ko alkatetzaren ebazpen bidez esleitu zitzaizkion TAPIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, S.L.ri, "Lazkaoko Harizti Handi futbol-zelaiaren argiztapen artifizialeko instalazioa eguneratzeko proiektua" burutzeko lanak EHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA LAUEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMOTan (150.469,70 €) gehi BEZari dagokion HOGEITA HAMAIA MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMOTan (31.598,64 €) prezioan, hau da, proposatzaileak bere eskaintza ekonomikoan jarritako prezioan.

Kontratua 2022ko irailaren 23an sinatu zen kontratazailearen profilararen bitartez.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 46 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEI MILA ZAZPIEHUN ETA HEMEZORTZI euro eta HIRUROGEITA BI zentimo (20.718,47 €)takoa onartzea erabaki da.

IV.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEA OBRAREN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza erreka gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen hirugarren obra egiaztatzea egin du. Hirugarren obra egiaztatze honen zenbatekoa HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HEMEZORTZI euro eta HOGEITA BEDERATZI zentimo (12.818,29 €) gehi B.E.Z.ri dagokion BI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIA euro eta LAUROGEITA LAU zentimo (2.691,84 €) da, guztira HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA HAMAR euro eta HAMAIRU zentimo ===== (15.510,13 €).





Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Bestalde, Joxemai eta Maialen zinegotziak (EH Bildu) abstenitu egin dira proiektuarekin bat egiten ez dutelako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzios (EH Bildu), hirugarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

V.- ENIRIO ARALAR MANKOMUNITATEARI 2022KO UDAL EKARPENA

Lazkaoko Udalarari 2022an dagokion urteko ekarpena 14.873,40 €takoa da. Hiruile-
roko lau ordainketatan banatuta, hiruileko bakoitzean 3.718,35 € izango lirateke.

Tokiko gobernu-batzarrak aho batez onartu zuen ekarpen hori.

VI.- TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUARI 2022KO UDAL EKARPENA

Lazkaoko Udalarari 2022an dagokion urteko ekarpena 4.212 €takoa da.

Tokiko gobernu-batzarrak aho batez onartu zuen ekarpen hori.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-04 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea astean 3 orduetik 5 ordura irailaren 1etik aurrera, laguntza gehiago behar dutelako. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %100a izango da.
- 22-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea irailaren 13tik aurrera astelehenetik larunbatera egunean 2 ordu, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100a izango da.
- 22-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2022ko abuztuaren 31ean bere borondatez.
- 22-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2022ko abuztuaren 3an egunero 4 ordu astelehenetik larunbatera. Onuradunen ekarpena zerbitzu kostuaren %100a izango da

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.-

- 22-01-012 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntza ematea abuztutik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea abuztutik abendura. Eskatutakoaren %100a da.

Iparra Hegoa Programa.-

2022. urteko Iparra - Hegoa Lankidetzaz Programari dagokion dirua modu honetan banatzea proposatzen du Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak:

1. **DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MISIO ORDEZKARITZA.** RWANDARWEJOKO EGITASMOAN ERAIKIN BERRIAK ERAIKITZEKO ETA GIHARAKO JANGELA ZABALTZEKO (AFRIKA). **16.000 €.**
2. **ONG TAUPADAK.** EDATEKO URA ETA OINARRIZKO SANEAMENDUA AMA HAURREN HERIOTZA EZABATZEKO (BOLIBIA). **1.000 €.**
3. **ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO.** "GUK ERE EGIN DEZAKEGU" PROGRAMA INDARTZEA, BALIABIDEAK INDARTZEKO. (NIKARAGUA). **5.000 €**
4. **HERRIAK ELKARLANEAN.** LASARRE ESKOLA BERRIA HAITIN (HAITI). **5.000 €.**
5. **EGOIZIA.** COVIDAREN OSTEKO OSASUN ARRETA INTEGRALA, GENERO INDARKE-RIAREN BIKTIMA DIREN NESKA MUTILEI ARRETA BEREZIA ESKAINIZ (PERU). **5.000 €.**
6. **ABAY EUSKADI.** DESNUTRIZIOA DUTEN BULARREKO HAURRENTZAKO NUTRIZIO EUSKARRIA (ETIOPIA). **2.500 €.**
7. **LANKIDETZARAKO INGENIERITZA.** POBREZIAREN AURKAKO BORROKA HEZKUNTZAREN ETA OSASUNAREN BIDEZ (AFRIKA). **1.500 €.**

VIII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK

Lazkaoko herritarrek eta Euskal Aker Taldeak Unai Dominguezen omenez ekitaldi ezberdinez osatutako eguna antolatzeagatik 1.000 €tako diru laguntza ematea erabaki da, Kultura Batzordeak proposatuta.

IX.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrerara dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, honako erabaki hau hartu da:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntza.-

- 2022. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Hiru ikasle dira, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 300 € emango dira.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

X.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa lurreko batzordetik baserriar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

Lazkaoko baserriar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat base-





LAZKAOKO
UDALA

rritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei hirugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

Baserritarra	Zenbatekoa
Iker Sukia Mesas	295
GUZTIRA	295 €

Ordainketa aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Joxemai Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) iradokizun bat egin du pisten konponketen inguruan. Hain zuzen ere, pista hauen erabilpenegatik erabiltzaileek tasa bat ordaintzea.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA

